

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2024ko ekainaren 19an aurkeztuko du

Anthony McCall: *Segundo-frakzioa*

GUGGENHEIM BILBAO

Anthony McCall: Segundo-frakzioa

- Datak: ekainak 19–azaroak 10, 2024
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2024ko ekainaren 19tik azaroaren 10era, Film & Video programaren hamargarren urteurrenarekin bat, *Anthony McCall: Segundo-frakzioa* erakusketa izango da ikusgai Guggenheim Bilbao Museoan. 2014az geroztik, Film & Video programazioak bideo-arteari eta mugimendudun irudiari lotutako praktika artistiko garaikideen ikuspegi osatu eta erabat berezia eskaintzen jardun du, eta urteotan guztiotan hainbat artistaren lan adierazgarriak erakutsi ditu, besteak beste, Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Pierre Huyghe, Diana Thater, William Kentridge, Javier Téllez, Sharon Lockhart, Monira Al Qadiri, Alex Reynolds, Marine Hugonnier eta beste sortzaile gailen askorenak.

Oraingo honetan, *Segundo-frakzioa* izenburupean, Anthony McCallen (St. Paul's Cray, Erresuma Batua, 1946) lan-sorta bat aurkeztuko da. New Yorken bizi den artista britainiarra aitzindaria da baliabide artistiko berrietan, zinema hedatuan eta bideo-instalazioan. McCallek argi proiektatua erabiltzen du fenomeno eskultorikoak sortzeko eta bisitariak murgiltze-esperientzia batean barneratzeko. Argi-sortek egitura geometrikoak eratzen dituzte, eta puntuak, berriz, espazioan gurutzatzen diren lerro, segmentu zuzen edo kurbatu bihurtzeraino hedatzen dira. Konfigurazio horiek airean egindako marrazkien, eskultura minimalisten edo zinema-mota erabat abstraktuaren itxura dute. Hiru arlo horiek —zinema, eskultura, marrazkia— 1970eko hamarkadaz geroztik elkartzen dira McCallen lanean “argi solidoa” deritzon ideiarene baitan; kontzeptu horrek erakusketa-aretoan argi-planoen proiektzio kontrolatuak sortutako efektuak izendatzen ditu, hain zuzen ere. Argi trinkoaren formak orientazioaren, posizioaren eta eskalaren etengabeko aldaketan menpe daude, eta ukigarriak dirudite. Gainera, formetan barrena ibiltzera bultzatzen dute publikoak; baina interakzio paradoxikoa sustatzen dute, ez baitute zerbait ukitzearen sentsaziorik eragiten, harridura-efektu agortezin bat baizik.

Erakusketan McCallek argi trinkoz egindako lan berria estreinatuko da: *Segundo-frakzioa Ispilua IV* (*Split Second Mirror IV*, 2024), argi-proiektzio horizontal bikoitza, bi ispilu handi, bi proiektore eta bi pantaila zeharrargi dituena. Elementu horiek banandu edo moztu egiten dituzte argiak sortutako bi bolumen konikoak —aretoan simetrikoki kokatuak—, haien mugimenduak islatu edo biderkatu nahiko balituzte bezala. Lan berri horretan argia altuera desberdinetan proiektatzen da, eta efektu eliptikoak eta horizontalak sortzen ditu. Gainera, artistak animazio digitala erabiltzen du formak espazioan birarazteko; forma horiek bat egiten dute, eta plano gurutzatu eta kiribilduetan datzan marrazki lineal bat osatzen.

Instalazioak ustez kontraesankorra den esperientzia eskaintzen du; izan ere, alde batetik, dimentsio antzeko irudiek sendo itxura dute, baina argiz eginak daude berez; bestetik, geldirik daudela dirudi, baina behin eta berriz aldatzen dira denborak aurrera egin ahala. McCallek mugimendudun argi-eskulturekin elkarrekintzan aritzera gonbidatzen ditu bisitariak, eta, horrela, zalantzan jartzen du zinema

GUGGENHEIM BILBAO

konbentzionalak argiaren, denboraren eta espazioaren narratiba, muntaia eta manipulazioa baliatzeko duen modua. Artistak honela deskribatzen du bere sortze-lanaren bilakaera: “Lan hau 50 urte baino gehiagoan lantzen dihardudan sail luze batekoa da. Zineman hasi nintzen zentratzen, baina urteen joanarekin dimentsio eskultorikoa ere interesatu zait, baita marrazkiak beti betetzen duen zeregin hori ere; eta performancea ere interesatzen zait, bisitariak, obrarekin ez ezik, elkarren artean ere interakzioan aritzen diren aldetik”.

Erakusketako gelaurrean McCallen funtsezko lan goiztiar bat dago ikusgai: *Zuri-beltzeko miniatura* (*Miniature in Black and White*, 1972). Lan horrek garai hartan oso hedatua zegoen Kodak etxearen karrusel motako diapositiba-proiektore bat erabiltzen du. Proiektoreak 81 diapositibaren errotazioa erakusten du, irudi finko bati denbora-tarte batez begiratu eta gero objektu zuri bati begiratzean agertzen diren koloretako irudi negatiboak sortzen dituena. Gune horretan *Ke-lainoa I – VII* (*Smoke Screen*, 2017) izeneko eskala handiko argazki-saila ere badago; argazki horiek argi trinkoaren mugimendua izozten dute, laino artifizialari argi-sorta baten bidez tarteka agerian geratzen zaizkion testurak arakatzeko aukera izan dezaten gure begiek.

Anthony McCall. Biografia

Anthony McCall (St. Paul's Cray, Erresuma Batua, 1946) 1973az geroztik New Yorken bizi da eta bertan egiten du lan. Zinema, eskultura eta marrazkia bezalako diziplinak uztartzen aitzindaria da, eta “argi solidozko” instalazioengatik da ezaguna; horien bitartez, argiaren izaera eta zinemaren ezaugarriak aztertzen dihardu azken bost hamarkadetan.

Bere obrak nazioarteko erakusketa ugarritan lortu du aintzatespena, besteak beste, honako erakunde hauetan: Whitney Museum of American Art, New York; MMK, Viena; Kunsthaus Zurich; Hamburger Bahnhof, Berlin; eta Hirshhorn Museum, Washington DC. McCallek talde-erakusketa garrantzitsuetan ere parte hartu du honako hauetan: Centre Pompidou, Paris; Tate Britain (Londres); Moderna Museet, Stockholm; Hangar Bicocca, Milan; Museu Serralves, Porto, eta Eye Film Museum, Amsterdam.

Hezkuntza-jarduerak:

Inaugurazio-hitzaldia (ekainak 18)

Anthony McCall artista erakusketaren komisario eta Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun Manuel Cirauquirekin arituko da bere *Segundo-fraczioa* erakusketaz eta, bereziki, bere *Segundo-fraczioa Ispilua IV* lan berriaz. Ondoren, solasaldia izango da publikoarekin.

Film & Video (103 aretoa)

GUGGENHEIM BILBAO

Film & Video aretoa bideo-arteari, bideo-instalazioari eta mugimendudun irudiari eskainitako gunea da, eta bertoko zein atzerriko egileen lanak aurkezten dira bertan. Aurten hamargarren urteurrena betetzen du, eta nazioarteko bi figura gailenekin ospatu du. Otsailean, Vinca Kruk eta Daniel van der Velden artistek osatutako Methahaven kolektiboak *Kaosaren teoria* izeneko film-instalazio berezia aurkeztu zuen bertan. Ekainetik aurrera, berriz, Anthony McCallen eta bere argi trinkozko obra berezietako baten txanda izango da.

2014an ireki zenetik, Film & Video aretoak artista nabarmenen sorkuntzak erakutsi ditu: Christian Marclay, Ragnar Kjartansson, Fiona Tan, Ken Jacobs, Amie Siegel, Pierre Huyghe, Michael Snow, Javier Téllez, Diana Thater, Allora & Calzadilla, William Kentridge, Alex Reynolds, Sharon Lockhart, Monira Al Qadiri, The Otolith Group, Marine Hugonnierrenak, eta Methahaven, besteak beste.

Azaleko irudia

Anthony McCall: *Segundo-fraczioa*

Segundo-fraczioa (Ispilua) IV [Split Second (Mirror) IV], 2024

Instalazioaren ikuspegia, Guggenheim Bilbao Museoa

Eskaintza: artista eta Sean Kelly, New York, Los Ángeles & Sprüth Magers

© Anthony McCall

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsa irudiak

Anthony McCall: Segundo- frakzioa

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Anthony McCall: *Segundo-frakzioa*

Segundo-frakzioa (Ispilua) IV [Split Second (Mirror) IV, 2024

Instalazioaren ikuspegia, Guggenheim Bilbao Museoa

Eskaintza: artista eta Sean Kelly, New York, Los Ángeles & Sprüth Magers

© Anthony McCall



Anthony McCall: *Segundo-frakzioa*

Segundo-frakzioa (Ispilua) IV [Split Second (Mirror) IV, 2024

Instalazioaren ikuspegia, Guggenheim Bilbao Museoa

Eskaintza: artista eta Sean Kelly, New York, Los Ángeles & Sprüth Magers

© Anthony McCall



Anthony McCall: *Segundo-frakzioa*

Zuri-beltzeko miniatura, 1972

Instalazioaren ikuspegia, Guggenheim Bilbao Museoa

Eskaintza: artista eta Sean Kelly, New York, Los Ángeles & Sprüth Magers

© Anthony McCall



Anthony McCall: *Segundo-frakzioa*

Ke-lainoa I-VII, 2017

Zilar-gelatinazko zazpi kopia, Dibond gainean muntatuak

Instalazioaren ikuspegia, Guggenheim Bilbao Museoa

Eskaintza: artista eta Sean Kelly, New York, Los Ángeles & Sprüth Magers

© Anthony McCall

